

Aseguru-konpainia baten funtzio gehienak betetzen ditu, baina ez da aseguru-konpainia bat. “Babes sare autogestionatua” da Sutearo, baserrien eta landa eremuko etxebizitzaren jabeek elkarri laguntzeko sortua. Geroz eta presentzia handiagoa eskuratzen ari da: egun, Sutearon ia 5.000 baserri daude sartuta.

# Sutearo, baserrietako eta landa eremuko etxebizitzaren babes sare autogestionatua

Baserrietan edo landa eremuko etxebizitzetan sortu daitezkeen arazo eta kalteei aurre egitea, hori da Sutearo elkar-tearen helburu nagusia. Baina ez da aseguru-etxe bat, elkarteko kideek nabarmendu dutenez. “Ematen ditugun babes eta laguntzak antzekoak dira, baina funtzionamendua guztiz desberdina da. Asanblearioak gara %100ean”. Nabarmendu dutenez, Sutearok ez du “estruktura hierarkizatu edo piramidalik”. Baserrien eta etxebizitzaren jabeak dira elkartea aurrera eramaten dutenak. Bazkideak “ermandadetan” biltzen dira eta Sutearo ermandade horien kudeaketa administratiboaz arduratzen da. Erabakiak modu asanblearioan hartzen dituzte elkartean: urtero batzar orokorrak egiten dira ermandadade guztietan eta bazkide guztiek dute horietan parte hartzeko aukera.

Elkarteko kideek nabarmendu dutenez, baserriak “eremu ezezaguna” izan ohi dira aseguru konpainientzat. “Ondorioz, baserriarrak aseguru etxeetara hurbiltzean nolabait babesgabe edo noraezean sentitzen direla diote”.

Ekarpen berdina guztiek

Auzolana, partaidetza, bazkidetza, elkar-laguntza eta autogestioa. Horiek dira elkar-tearen funtzionamendua definitzen duten hiru hitzak. Bazkideek ekarpen bat egiten dute, etxebizitza edo baserriaren balioaren arabera zehazten dena. Trukean, babes eta laguntzak jasotzen dituzte elkar-tearen partetik, euren beharizantetara egokitutakoak. Bazkide guztiek dituzte eskubide eta betebeharrak. Hainbat istripu motekiko babesaren ematen du elkartek: erantzunkizun zibila, suteak, tximistak, euria, haizea, elurra, lapurretak, urak eragindako kalteak...

Prebentzio lana ere egiten



Eskualdeko hainbat baserri dira dagoeneko Sutearoko bazkide. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## Aiaraldean baserri eta etxebizitza ugari daude Sutearoren babes-sarean sartuta, 200 baino gehiago

dute Sutearon, baserriarrei izan ditzaten kalteei buruzko informazioa eta aholkuak emanaz. Hainbat egitasmo egin dituzte horri begira: elkarteko bazkideen baserri guztietan su-itxalgailuak jarri dituzte, tximiniaren garbiketaren garrantzia nabarmendu dute, tximistek eragiten dituzteen kalteak ekiditeko aukerei buruzko informazioa banatu dute eta ikastaro praktikoa egin dituzte zenbait herritan, besteak beste.

5.000 etxe

Egun 5.000 etxe babesten ditu Sutearok. Bizkaia eta Gipuzkoan daude gehienak, baina Aiaraldean ere presentzia nabarmena dauka elkartek. Orozko, Laudio, Amurrio, Arrankudiaga-Zollo, Urduña eta Okondoko 200 etxebizitza baino gehiago daude Sutearon sartuta. Sutearo.eus atarian topatu daiteke elkarteari buruzko informazio gehiago.



## 5.000 ETXE BABESTUTA

### BIZKAIA

Lea-Artibai [10]: Amoroto, Aulesti, Barinaga, Berriatua, Bolibar, Etxebarria, Ispaster, Markina, Mendexa eta Munitibar. Durangaldea [6]: Abadiño, Atxondo, Elorrio, Etxano, Mallabia eta Otxandio. Arratian [3]: Dima, Zeanuri eta Zeberio. Busturialdea [9]: Ajangiz, Arratzu, Busturia, Errigoiti, Foru, Mendata, Muxueta, Muxika eta Nabarniz. Mungialdea [2]: Arrieta eta Fruiz. Txorierri [2]: Erandio eta Leioa. Orozkon [1]

### GIPUZKOA

[4]: Angiozar, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Urretxu.

### ARABA

[1]: Mendoza.



Jauregizar 10, behea 48340 Amorebieta-Etxano

94 630 00 62 - 660 396 700 Whatsapp: 660 396 701 / [sutearo@sutearo.eus](mailto:sutearo@sutearo.eus)